

EAEko 2024ko Aurrekontu Orokorrak egiteko jarraibide ekonomikoak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA

Indizea

1. AURKEZPENA.....	5
2. SUSPERRALDIA SENDOTZEKO AURREKONTUA	6
2.1. Euskal ekonomiaren azken aldiko bilakaera.....	6
2.2. Euskal ekonomiaren agertoki makroekonomikoa 2023-2024.....	9
2.3. Agertokiaren balizkoak	11
3. EUSKO JAURLARITZAREN KONPROMISOAK GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUEN ESPARRUAN	14
4. PERTSONAK	15
4.1. Erronka demografikoari heltzea. Gazteen emantzipazioa.....	15
4.2. Osasuna, pertsonen bizi-kalitatearen funtsezko zutabea	16
4.3. Etorkizuneko erronketara egokitutako hezkuntza ereduaren eraikuntzan aurrera egitea.....	17
4.4. Hizkuntza eta kultura, gure nortasunaren funtsezko osagaiak	18
4.5. Gizarteratzea, aukera berrien bermea eta inor atzean ez uztea	18
4.6. Berdintasunezko eta genero-indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzea.....	19
5. OPAROTASUNA	21
5.1. Pertsona guztientzako enplegu-aukerak sortzea	21
5.2. Industriaren aldeko apustua egiten jarraitzea, euskal ekonomiaren eragile gisa.....	22
5.3. Zientzia, teknologia eta berrikuntzan inbertitzearen aldeko apustuari eustea	23
5.4. Finantza-sistema indartzea.....	23
5.5. Mugikortasun jasangarriko sistema artikulatzen aurrera egitea.....	23
5.6. Euskadiko Hiri Agendaren hedapenean aurrera egitea. Hiri jasangarriak.....	24
5.7. Energia berriztagarria bultzatzea.....	24
6. PLANETA	26
6.1. Basque Green Deal eta Euskadik jasangarritasunarekin duen konpromisoa bizkortzeko arau-aldaketa	26

6.2. 8 proiektu eraldatzaile, ingurumen-politika gidatzeko.....	27
7. BAKEA	29
7.1. Pertsonak zuzenbide-estatuaren esparruan babestuko dituen justizia-zerbitzu publiko baten antolaketan aurrera egitea	29
7.2. Pertsona guztien arteko bizikidetzarako oinarriak indartzea	29
7.3. Autogobernua indartzea eta egiteke dauden transferentziak osatzea	30
8. LANKIDETZA	31
9. . FINANTZA PUBLIKOEN JASANGARRITASUNA: ZUHURTZIA FISKALA ETA INBERTSIO PUBLIKO BERDE, DIGITAL ETA SOZIALAREN BABESA.....	32
10.AURREKONTU-JARRAIBIDEAK	36

1. AURKEZPENA

Aurrekontua gobernu-politikaren ekonomia- eta finantza-isa da, eta, beraz, Gobernuaren helburuei eta jarduten duen sektore-eremuei lotuta dago nahitaez. Ikuspegi horretatik, aurrekontuak egiteko jarraibide ekonomikoak estrategia-planak-aurrekontua katean funtsezko kate-maila dira.

Urte bakoitzeko estrategien eta aurrekontuen arteko lotura, berez, oso lan konplexua da, baina zailtasun hori nabarmenagoa da gaur egungoa bezalako ziurgabetasun handiko testuinguruetan.

Egia da Euskadirentzako 2022ko urteko saldoa oso positiboa izan zela, Barne Produktu Gordinaren (BPG) batez besteko hazkundea % 4,4koa izan baitzen, eta informazio berritzaileenak 2023ko lehen hilabeteetan aurreikusitakoa baino jarduera handiagoa erakusten du ere. Dena dela, ziurgabetasun makroekonomikoak eta hiru urteko etetearen ondoren arau fiskalen balizko itzulerak bere horretan jarraitzen dutenez, komeni da aurrekontu-partidak optimizatze-ko ahaleginak areagotzea, gobernu-planaren lehentasunak betetzen direla bermatzeko eta etorkizunean gerta daitezkeen gorabehera negatiboari aurre egiteko behar adinako maniobra-marjina izateko.

Erreferentziako koadro makroekonomikoa aurkeztu ondoren, Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuek ezarritako esparru estrategikoa kontuan hartuta aurrekontuen gidalerroak ezagutarazten dira, Garapen Jasangarriko 17 Helburuak biltzen dituzten bost Oinarrizko Ardatzen (ingelesez 5 P deiturikoak: *Pertsonak-People*, *Oparotasuna-Prosperity*, *Planeta-Planet*, *Bakea-Peace* eta *Lankidetzeta-Partnership*) eskemari jarraituz.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024rako Aurrekontu Orokorrek egiteko Jarraibide Ekonomikoak bat datoz Aurrekontu Erregimenari buruzko Legean ezarritakoarekin, eta aukera ematen zaie sailei eta gastuen kudeatzaileak diren zentroei uler dezaten zer testuingurutan formula-tzen diren aurrekontuak, eta jarraibide argiak izan ditzaten horiei eman nahi zaien eduki ekonomikoari dagokionez.

2. SUSPERRALDIA SENDOTZEKO AURREKONTUA

2.1. Euskal ekonomiaren azken aldiko bilakaera

2022. urtea oso zaila izan zen munduko ekonomiarentzat. Herritarren txertaketa masiboarekin aurrerapenak egon arren, omicron aldaera azkar hedatu zen eta honek osasun-zerbitzuak tenkatu zituen. Horrez gain, Errusiak Ukraina inbaditu zuen eta eraso honi nazioarteko komunitateak eman zion erantzuna herrialde erasotzailearen aurkako zigor ekonomikoen ezarpena izan zen. Guzti honen ondorioz, ekoizpen-kateak hautsi ziren, lehengaiak garestitu egin zi-ren, energia-krisia izan zen eta inflazioa nabarmenki igo zen. Baldintzatzaile guzti horiek izan arren, munduko ekonomiak bere BPGa % 3,4 handitzea lortu zuen, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta, eta % 3,0 dolarrarekiko kanbio-tasaren arabera neurtuta.

2022an, munduko ekonomiaren hazkundera (% 3,4) aurreko urtekoa (% 6,3) baino nabarmen txikiagoa izan zen; izan ere, hau ez da harritzekoa, kontutan izanik 2021ko hazkundera covid-19aren pandemiak bete-betean jotako urte atipiko batekin (2020) alderatuta kalkulatzen bai-ta. Hala eta guztiz ere, 2022ko tasa ez da oso desberdina azken lau hamarkadetako batez besteko balioekin alderatuta, guztiak % 3,0 eta % 4,0 artekoak baitira. Ildo horretan, garrantzitsua da aipatzea Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) bere azken iragarpen-txostenean adierazi zuenez, bost urteko epean munduko ekonomiarako espero den hazkundera % 3,0 ingurukoa izango dela.

2022an, adierazi den bezala, batez besteko hazkunde esanguratsua izan zen arren, haren hiruhilekoko bilakaera pandemia-osteko irekierak ekarritako eskari handiak sortutako arazoaren eta Ukrainaren inbasioaren ondorio ekonomikoen metaketak baldintzatu zuen. Zehazki, ELGAN sartzen diren herrialde garatuen multzoak % 4,6ko urte arteko aldakuntza-tasarekin hasi zuen urtea, baina hazkunde-erritmoa % 1,4ra jaitsi zen laugarren hiruhilekoan. Produkzio-kateen haustura, lehengaien eta energiaren garestitzea, horrek guztiak eragin zuen inflazio handia eta inflazioa kontrolatzeko egindako moneta-politika murriztailea dira herrialde garatuen hazkundearen intentsitate-galera hori azaltzen duten arrazoi nagusietako batzuk.

Euskal ekonomiak herrialde garatueterako deskribatutakoaren antzeko bilakaera izan zuen, baina dinamismo handiagoarekin. Zehatzago esanda, urteko batez besteko hazkundera % 4,4koa izan zen, munduko ekonomia baino puntu bat handiagoa eta ELGAko batez bestekoa baino 1,7 puntu handiagoa. Hazkunde horri esker, euskal ekonomiak pandemia hasi aurreko BPG errearen maila berreskuratzeko oso gutxi falta du. Beraz, susperraldia V formakoa izan da, eta

bi urtean baino ez. Hori ez dator bat 2008-2009ko Atzeraldi Handiaren ondoren BPG errealaren mailaren berreskurapenerako behar izan ziren zortzi urteekin.

Enpleguaren bilakaera ere positiboa izan zen 2022an, urteko batez besteko % 3,1eko hazkundearekin, eta horrek esan nahi du lanaldi osoko 30.000 lanpostu inguru garbi sortu zirela, guztira milioi bat enplegu inguru lortzeko. Kasu horretan, azken bi urteetako susperraldia BPGak eragindako baino biziagoa izan da, eta 2022an lortutako mailak nabarmen gaintzen du hiru urte lehenago zegoen maila. Hala ere, epe luzeagoko ikuspegi batek erakusten du, hain zuzen ere, 2022an lortu dela 2008an izandako enplegu-mailara itzultzea. Beraz, enpleguaren arloan hamalau urte behar izan dira Atzeraldi Handiaren aurreko mailara itzultzeko.

Euskal ekonomiaren hazkundera, ohi bezala, barne-eskariaren dinamismoan oinarritu zen, BPGren hazkunderari 2,7 puntu inguru eman baitzizkion. Hala ere, urte horretan aipatu beharreko ezaugarria kanpo-saldoak egin zuen ekarpen nabarmena da, 1,5 puntutik gorakoa izan baitzen. Oro har, kanpo saldoak portaera neutroa izan du euskal ekonomian, alde batetik edo bestetik hamarren gutxi batzuetako ekarpenekin, esportazioen ekarpen garrantzitsuak antzeko tamainako inportazioen ekarpenekin konpentsatzen baitira. Zentzu horretan, 2022ko saldoa atipikoa da, nahiz eta horrelako egoerak ere bizi izan ziren Atzeraldi Handian, gaur egungoarekin alderatu ezin den barne eskari ahuleko testuinguru batean.

Barne-eskariaren bi osagai nagusietatik, kapital eraketa gordinak erakutsi zuen dinamismorik handiena, % 4,4 hazi baitzen, ekonomiaren batez besteko hazkundearen ildotik. Urtearen amaieran agregatu horrek erritmoa moteldu bazuen ere, oso portaera egonkorra izan zuen urtearen zatirik handienean, eta %5,0 inguruko aldaketa tasak izan zituen, hainbat zailtasunei aurre egin behar izan arren: lehengai falta, kostuen igoera, ziurgabetasuna, etab. Kanpotik eta barnealdetik zetorren eskari handiak urte osoan zehar igoera nabarmenak izatea ahalbidetu zuen, baina 2021eko emaitza bikainera iritsi gabe (% 10,9). Hazkundera esanguratsuagoa izan zen ekipo-ondasunetan egindako inbertsioan (%6,9), eta gainerako inbertsioan, eraikuntzan egindakoa barne, emaitza apalagoa lortu zen (% 2,7), aurreko urtean lortutakoaren oso bestelakoa (% 3,1).

Azken kontsumoko gastua % 2,2 igo zen 2022an, aurreko urteko kopurutik urrun. Agregatu horren bi atalak 2021ean baino nabarmen gutxiago hazi ziren. Alde batetik, administrazio publikoen kontsumoak tasa negatiboa izan zuen (-%0,4), eta horren arrazoia aurreko urtean pandemia geldiarazteko egin zen ahalegina da, haren intzidentzia kontrolatuago zegoenean mantentzeko behar izan ez zena. Bestetik, familien kontsumoa % 3,0 hazi zen urteko batez bestekoan, eta hiruhilekoko bilakaera-profila apur bat beheranzkoa izan zen, inflazioak erosteko ahalmena murrizten zuen heinean. Hala eta guztiz ere, pandemian pilatutako aurrezkiak eta enpleguaren sorrera garrantzitsuak agregatu horri eutsi diote urtean zehar.

Eskaintzaren ikuspegitik, euskal ekonomiak 2022an izan duen hazkundera sendotzat jo daiteke; izan ere, hazkunde hori ez da sektore fisiko baten mende egon, baizik eta, funtsean, bi zutabe

nagusitan oinarritu da: industria eta zerbitzuak. Zehazki, industria %4,6 hazi zen 2022an, eta zerbitzuak %4,7. Industriak indar handia erakutsi zuen urtearen lehen erdian, %6,0 inguruko aldakuntza-tasekin, ondorengo bi hiruhilekoetan moteldu zirenak. Sektoreak hornidura-faltari aurre egin behar izan zion, kamioilarien greba baten ondorioz enpresa garrantzitsuen ekoizpena gelditu behar izan baitzen. Nahiz eta emaitza ona izan, oraindik hiru puntura dago 2019an izan zuen balio erantsia.

Eraikuntza beste sektoreen emaitza onetatik urrundu zen eta urteko batez besteko %2,0ko hazkundera izan zuen. Ukrainan gerra hasteak eragin handia izan zuen sektore horretan, lehengaien faltak bere jardueraren garapen normala eragotzi baitzuen. Gainera, intsumo falta horren ondoriozko kostuen igoerak obra batzuk geldiarazi zituen. Hala ere, urtearen bigarren erdia hobea izan zen eta orduan erregistratutako aldakuntza-tasak industria arloan erakutsita-koen antzekoak izan ziren. Emaitza horiek izan arren, sektoreari ia hamar puntu falta zaizkio pandemiaren aurretik zuen mailara itzultzeko. Bestalde, eskura dagoen informazioaren arabe-ra, obra zibilak eraikuntzak baino portaera hedakorragoa izan zuen, baina azken horrek azelerazioa erakutsi zuen urtean zehar.

Zerbitzuek, oro har, joera oso hedakorra izan zuten 2022an, eta balio erantsiaren batez beste-ko hazkundera % 4,7koa izan zen. Sektore honek 2009an izandako maila nabarmen gaitzetea lortu du, nahiz eta bere osagai guztiak ez dauden egoera berean. Izan ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldea %10,7 hazi zen, aurreko urteko %11,8aren ondoren. Emaitza apartak izan arren, oraindik bi puntutako hazkundera behar du 2009ko balioa berreskuratzeko, jarduera horrek balio erantsiaren %20 baino gehiago galdu baitzuen pandemiaren ondorioz. Sektore publikora gehien iristen diren jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak) hazkunde handiagoa izan zuten (%1,8), aurreko urtean emandako bultzadaren ondoren. Azkenik, gainerako zerbitzuek (%2,8) intentsitatea galdu zuten hiruhilekoak igaro ahala. Azken bi jarduera-talde horiek 2009ko mailak gaitzete dituzte.

2022ko alderdirik nabarmenetako bat inflazioaren hazkunde handia izan zen. Hainbat urtez maila apaletan egon ondoren, 2021ean ekonomiaren suspertzeak kontsumo-prezioen igoera % 3,1ean kokatu zuen, Europako Banku Zentralaren (EBZ) helburuaren gaitzetik, eta 2022an igoera nabarmen handiagoa izan zen (% 8,0), Ukrainako gerrak lehengaietan izan zuen eraginagatik. Izan ere, gatazka hasi zenean, joan den urteko otsailean, areagotu egin ziren aurretik zeuden prezioen goranzko joerak, lehengai eta energia eskuragarrien kopurua murriztu egin baitzen. EAEko KPIaren igoeraren punturik altuena uztailan izan zen (% 10,5), elektrizitateari, gasari eta erregaiei eragin zien energia-krisi baten erdian. Horrela, hilabete horretan gas naturalaren prezioa 200 euroraino igo zen MWh-tan eta 325 euroraino abuztuan.

Hurrengo hilabeteetan, interes-tasen igoerak eta Europan negua igarotzeko gas-murrizketarik behar izango ez zela baieztatzeak KPIaren aldakuntza-tasa leuntzen lagundu zuten. Tasa hori %4,2an zegoen jada 2023ko apirilean, eta baliteke hurrengo hilabeteetan behera egitea.

Moderazio hori azpiko inflaziora zabaldu da, baina intentsitate txikiagoarekin, % 6,8koa baita, aurreko hilabeteetan % 7,4ra iritsi ondoren. Bestalde, BPGaren deflaktorea % 4,4an kokatu zen 2022an, azelerazio arineko hiruhileko profilarekin.

BPG errearen hazkundeak (%4,4) eta enpleguarenak (%3,1) lan faktorearen itxurazko produktibitatearen % 1,2ko irabazi bat uzten dute 2022an, eta zifra hori azken hamarkadetako batez bestekoaren (% 0,8) gainetik dago. Sektore ekonomikoen portaerak ohiko ezaugarri batzuk izan zituen. Hala, industria izan zen berriro produktibitate-irabazi handiena izan zuen jarduera (%3,0), batez besteko balioen gainetik (%1,5). Bestalde, eraikuntzaren eraginkortasuna hamarren gutxi batzuk baino ez zen hobetu (%0,3), erregistro historikoen ildotik. Hala ere, ezusteko txiki bat nabari da zerbitzuen emaitzan, hobekuntza esanguratsurik lortu ohi ez duen sektorea (% 0,5) izanik, joan den urtean eraginkortasuna % 1,0 hobetu zuelarik.

2.2. Euskal ekonomiaren agertoki makroekonomikoa 2023-2024

Egoera koiuntural horretatik abiatuta, eta testuinguruaren hipotesiak kontuan hartuta, agertoki makroekonomikoa euskal ekonomiaren hazkundera 2022ko emaitza bikainekin alderatuta motelagoa izango dela aurreratzen du. Zehazki, BPGa % 1,6 haziko da aurtan, eta % 2,1 datorren urtean. Hiruhilekoko bilakaeran, lehen hiruhilekoko emaitza ona (%2,3) lortu zen, nahiz eta 2022ko hiruhileko batekin alderatu, non susperraldi ziklo honen maximoa ezarri zen, pandemiaren ondoren errebotek eragin handiena izan zuen unean, hain zuzen ere.

Eskariaren azterketak iradokitzen du kapitalaren eraketa gordina izango dela aurtan eta datorren urtean hazkunde tasarik handienak lortuko dituen osagaia, nahiz eta 2024an bi makro-magnitude nagusien arteko hurbilketa espero den. Kontuan izan behar da birusak sortutako krisia berreskuratzeko prozesua osatu gabe dagoela eremu askotan, eta eskaria handia dela oraindik. Horri esker, euskal enpresek inbertsio-proiektu berriei ekin diezaiekete, baita egungo ziurgabetasun-uneetan ere. Europatik eraldaketa digitalari, ingurumenaren eraldaketari eta eraldaketa sozialari ematen ari zaion bultzadak kapitalaren eraketa gordinaren alde egiten du, inbertsio-eremu berriei atea irekitzen baitie. Aitzitik, interes-tasen igoerak kreditua garestitzen du eta proiektu berrien errentagarritasuna murrizten du.

Bestalde, azken kontsumoko gastuak bultzada nabarmena izango du agertoki honetako bi urteetan. 2023an, familien kontsumo-gastua moteldu egingo da inflazio handiaren eta horrek dakarren erosahaltenaren galeraren ondorioz. Hala ere, inflazioaren eta aurrezki-poltsaren kontrolak eta enpleguaren hazkundeak aldakuntza-tasa bizkortuko dute datorren urtean, % 1,7ra arte. Administrazio publikoen kontsumoa ekonomia osoarena baino erritmo biziagoan haziko da aurtan, baina datorren urtean moteldu egingo da.

Urtebete baino gehiago BPGari ekarpen esanguratsuak egiten eman ondoren, kanpo-saldoak profil neutroagoa eskainiko du, ekarpen negatiboak eta positiboak txandakaturik, eta ekarpen horiek, oro har, garrantzi txikikoak izango dira. Nazioarteko merkataritzak aurrera egiten

jarraitzea espero da, nahiz eta gerrak eta polarizazio geopolitikoak aurka joka dezakeen. Ondorioz, euskal esportazioek gora egingo dute, baina bultzada hori kanpoko produktuen eskari handiagoarekin konpentsatuko da. Zehazki, kanpo-saldoaren ekarpena 2023an zertxobait negatiboa izango dela eta 2024an neutroa izango dela aurreikusten da.

Euskadiko taula makroekonomikoa 2022-2024

	2022	2023	2024
BPG	4,4	1,6	2,1
Azken kontsumoa	2,2	1,5	1,7
Etxeetako kontsumoa	3,0	1,2	1,8
Administrazio publikoen kontsumoa	-0,4	2,5	1,4
KEG	4,4	2,8	2,7
Barne-eskaria	2,8	1,9	2,0
Kanpoko eskariaren ekarpena	1,6	-0,3	0,0
BPG nominala	8,9	5,9	4,9
BPG deflaktorea	4,4	4,2	2,8
Enplegua (lanpostuak)	3,1	1,1	1,6
Landunak (BJA)	2,4	0,5	0,9
Langabezia-tasa	8,5	8,2	7,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Ikuspegi sektorialetik, 2023 zerbitzuen urtea izango da berriro. Izan ere, behin mugikortasunerako murrizketak kenduta, sektore hori momentu gozo bat bizitzen ari da, eta egoera hau urte honen bukaeran eta datorren urte osoan zehar luzatuko da. Horregatik, aurten bere balio erantsia ekonomiaren batez bestekoaren gainetik haziko dela aurreikusten da, nahiz eta datorren urtean industria zerbitzuen hazkundearen balioetara hurbilduko den. Industriak tonu apala izango du aurten, baina emaitzak hobetuko ditu datorren urtean, ziurgabetasuna leundu eta Europako funtsek jarduera jakin batzuk berpizten dituzten heinean. Azkenik, eraikuntzak aipatutako beste bi sektoreek baino tasa txikiagoak izango ditu, kostuen igoerak eta lan-merkatuan nolabaiteko tentsioa izateak baldintzatuta. Hala ere, zailtasun horiek hurrengo hiruhilekoetan konponduko dira.

Harrigarria gertatzen ari da ekonomia garatuen susperraldiak erakusten duen enplegu mailaren hazkundera. Euskadi ez da salbuespena. Horrela, 2022an BPGa % 4,4 hazi zen eta enplegua, lanaldi osoko lanpostuetan neurtuta, % 3,1. Bestalde, 2023ko lehen hiruhilekoan enpleguaren

hazkundera % 1,5koa izan zen, eta espero da, hurrengo hiruhilekoetan, BPGaren hazkundera moteldu ahala, lanpostuen sorrerak ere moteltze bat erakutsiko duela. Hala eta guztiz ere, agertoki horren aurreikuspena da aurten sortutako lanpostuen kopurua 11.000 inguru izatea, datorren urtean beste 16.000 izango direla, eta aldiaren amaieran argi eta garbi gaitutako direla lanaldi osoko milioi bat lanpostuetako langa.

Lanpostuen ordean enplegua duten pertsonen kopurua aztertzen bada, 2022an hazkundera %2,4koa izan zen, BJAren arabera, eta urte honetarako eta hurrengorako aurreikuspena kopurua % 0,5 eta % 0,9 handitzea da, hurrenez hurren. Lanpostuen eta pertsonen arteko aldea, funtsean, lanaldiak azaltzen du, aldi batetik bestera alda baitaiteke. Lan-profil zehatz batzuk betetzeko zailtasuna dagoen une honetan, badirudi lanaldia handitzeko joera dagoela.

Ekonomiaren eta enpleguaren suspertzeari esker, langabezia-tasak beheranzko bilakaerari eutsi dio, eta, ondorioz, % 8,5koa izan da 2022ko batez besteko balio gisa, eta antzeko tasetan jarraitzen du urte honen hasieran, % 8,7koa izan baitzen aldi horretan. Egoera makroekonomiko berriak prozesuaren jarraipena aurreikusten du, eta, horren ondorioz, langabezia-tasa hiru hamarren jaitsiko da aurten, eta zazpi hamarren gehiago datorren urtean, urteko batez bestekoa % 7,5koa izan arte.

Goranzko prezioak dira munduko eta Euskadiko ekonomiaren suspertze-prozesuaren mehatxu handienetako bat. Pandemiaren kontrolari jarraitu zion eskari handiak, horniduren etorreraren izandako atzerapenak, Errusia eta Ukrainaren arteko tentsio geopolitikoak eta produktu energetikoen garestitzea dira 2021eko erdialdetik inflazioa igo duten elementuetako batzuk. Zehazki, urte askoan prezioei eutsi ondoren, iazko azken zatian deflaktorea % 4,8an kokatu zen. Hala ere, prezioen dezelerazioa hasi da jada, eta deflaktorearen aurtengo batez bestekoa % 4,2koa izatea espero da, 2024an nabarmen jaitsiz, % 2,8ra arte.

2.3. Agertokiaren balizkoak

Agertoki makroekonomikoan ingurunearen portaerari buruzko hipotesi batzuk daude, atal bakoitzean adituek emandako iritzietatik eratorriak. Oro har, iturri horiek uste dute BPGren hazkundera moteltzen joango dela herrialde garatuetan, 2022an lortutako emaitza onaren ondoren. Hala ere, 2024rako gorakada orokorra aurreikusten da.

Joera horiei erreparatuz, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak bere agertokian ELGaren BPGren %1,3ko hazkundera suposatzen du aurtengo urterako eta % 1,4koa datorren urterako. Era berean, eurogunearen zifra % 0,8 eta % 1,4 dira. Azkenik, Espainiako ekonomia-erentzat lehen aipatutako herrialdeetakoak baino erritmo handixeagoak aurreikusten dira, % 1,7ko eta % 2,5eko balioekin erreferentziatzeko bi urteetarako.

Inguruneko aldagaien portaera

	2022	2023	2024
Euriborra	0,3	3,2	3,1
Kanbio tasa (euroak/dolarrak)	1,053	1,094	1,118
BPG hazkundera ELGA	2,9	1,3	1,4
BPG hazkundera Eurogunea	3,4	0,8	1,4
BPG hazkundera Espainia	5,5	1,7	2,5
Kontsumo pribatuaren deflaktorea Espainian	6,8	3,8	2,6
Ondasunen esportazioen deflaktorea Espainian	14,5	1,8	1,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Moneta-politikaren normalizazioa Europako interes tasen igoeran islatuko da 2022tik, eta bereziki 2023 honetan. Horrela, 2021ean interes-tasa negatiboak izan arren, 2022an % 1,8ra iritsi zen azken txanpan, eta une honetan Euriborra % 3,4 ingurukoa da, urte honetarako batez besteko % 3,2ko balioa espero delarik. Datorren urtean, inflazioa helburura hurbiltzen denean, moneta-politika leundu egingo da eta Euriborrak jaitsiera txiki bat hasiko du.

EBZk azken hiruhilekoetan Erreserba Federalaren mugimenduei egin dien jarraipenari esker, euroak dolarrekiko duen kanbio-tasa nabarmen hobetu da. Izan ere, parekotasuna une batez galdu ondoren, euroak 1,07 dolar inguruan kotizatzen du. Prozesu horrek aurrera jarraituko duela espero da, eta aurten urteko batez besteko kotizazioa 1,094 dolarrekoa izango dela eta datorren urtean 1,118 dolarrekoa ere izango dela aurreikusten da.

Aurreikuspenean, halaber, prezioek erreferentziako aldian izan duten portaerari buruzko hipotesi batzuk jaso dira. Zehazki, Espainiako kontsumo pribatuaren eta ondasunen esportazioen deflaktoreari buruzko hurbilketa bat egin da. Lehenengo kasuan, azken urteetako kontsumo-prezioei eutsi ondoren, 2022ko inflazioaren gorakada moteldu egingo da aurten eta datorren urtean, baina oraindik % 2,0ko helburutik gorako balioak izango ditu. Esportazioen kasuan, punturik altuena 2022aren hasieran lortu zen, deflaktorea % 17,3 izan baitzen, eta 2023ko lehen hiruhilekoan, berriz, % 6,7. 2023ko gainerako hilabeteetan ere eutsi egingo zaio prezioei, eta urteko batez bestekoa %1,8an geratuko da, 2024rako espero denaren antzeko balioa.

Ingurune ekonomikoan oraindik ere ziurgabetasun handia nabari den arren, euskal ekonomiari buruzko aurreikuspenak egiten dituzten erakundeek argitaratu dituzten balioen sakabanaketa txikia da. Gaur egun, alde hori puntu bat baino gutxiagokoa da 2023ko aurreikuspenenerako, hau da, Ceprederen azken aurreikuspenaren (% 0,9) eta Hispalinken (% 1,7) artean dagoen aldea (ekainean argitaratzen da). Eusko Jaurlaritzaren agertokia (% 1,6) aurreikuspen-sorta horren goiko aldean dago, baina Confebasken (% 1,5) eta Funcasen (% 1,4) agertokietatik gertu.

2024ari dagokionez, aurkeztutako aurreikuspen urriek erakusten dute euskal ekonomiaren hazkundera nabarmen bizkortuko dela, BBVAk aurreikusitako % 2,9tik Cepredek aurreratutako %2,3ra bitartean. Erreferentzia horiek gogoan, Eusko Jaurlaritzaren agertoki makroekonomikoa ez da gainerako organismoena bezain baikorra, hazkundera % 2,1a mantentzen baitu. Nolanahi ere, analista guztiek adierazi dute 2023a ere hazkunde handiko urtea izango dela, eta lortutako emaitza Euskadiko BPG potentziala baino nabarmen handiagoa izango dela, % 1,8 ingurukoa izan baitaiteke, pandemiaren aurretik egin ziren azken kalkuluen arabera.

Beste erakunde batzuen aurreikuspenak

	2023	2024
Hispalink (BEG-aren aldaketa)	1,7	2,5
Confebask	1,5	---
Funcas	1,4	---
BBVA	1,3	2,9
Laboral kutxa	1,3	---
CEPREDE	0,9	2,3

Iturria: Confebask (abendua 2022), Hispalink (ekaina 2023), Laboral kutxa (urtarrila 2023), Funcas (martxoa 2023), CEPREDE (maiatza 2023) eta BBVA (martxoa 2023)..

3. EUSKO JAURLARITZAREN KONPROMISOAK GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUEN ESPARRUAN

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2030 Agenda onartu zuen 2015eko irailean Garapen Jasangarriko Helburu (GJH) handiei heltzeko, hala nola pobrezia desagerraraztea, desberdintasuna modu guztietan murriztea, produkzio-eredu iraunkorrerako trantsizioa bultzatzea edo krisi klimatikoa geldiaraztea. Hala ere, 2018az geroztik argi zegoen 2030 Agendak bultzatutako eraldaketa-prozesua ez zela behar bezain azkarra izaten ari ez eta behar adinako inpaktua eragiten ari. Izan ere, eta horregatik, 2019ko irailean, Nazio Batuen 74. batzar nagusian, Antonio Guterres idazkari nagusiak gobernuei, enpresei eta gizarte zibilarri helburu globalen gaineko ekintza areagotzeko deia egin zien eta hurrengo 10 urteak GJHen gaineko Ekintzaren Hamarkada izendatu zituen.

Hala ere, hamarkada hori osasun-krisi global batean murgilduta hasi genuen, barneko zein herrialdeen arteko desberdintasun-arrakalak areagotu zituena, eta 2022ko otsailetik aurrekaririk gabeko krisi geopolitiko bati aurre egiten ari gatzaio, Errusia Ukraina inbaditu izanak eragindakoa, bere giza ondorio onartezinekin eta ondorio sozioekonomiko suntsitzaileekin.

2023aren erdialdean gauden hortan, onartu behar da Nazio Batuen Agenda Globalaren helburuei dagokienez nazioartean egindako aurrerapenen balantzea ez dela oso lausengarria. 2019an denbora agortzen ari zela eta ez genuela behar adina aurreratu baieztatzen bazen, 2023aren erdialdeko balantzean onartu behar da zailtasunak eta oztopoak areagotu egin direla eta munduan GJHak betetzeko pronostikoak okerrera egin duela.

Aurkako testuinguruan aurkitu arren, Euskadi 2030 Agenda Foroak GJHekiko EAEko konpromisoaren garapenari buruzko balorazio positiboa egin du 2022ko memorian eta Eusko Jaurlaritzak 2023ko aurrekontua GJHekin lerrokatzearen inguruan egindako txostenak nabarmendu du aurrekontu horrek lerrokatze-maila handia duela garapen iraunkorraren oinarri hirukoitzarekin (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa). Baina hori ez da nahikoa 2023an, 2030 Agendak hamabost urterako irudikatzen duen proiektuaren aldi baterako erdibidea zeharka-tuko dugunean. Ekintzaren hamarkadak pizgarri bat behar du, 2024ko aurrekontuan islatu be-har dena.

Jarraian, 2024rako planteatzen diren konpromiso nagusiak aurkezten dira, Nazio Batuek definitutako eta gizakientzat garrantzi kritikoa duten bost esparruetan egituratuta: Pertsonak, Oparotasuna, Planeta, Bakea eta Lankidetzeta.

4. PERTSONAK



2030 Agendaren 1. GJH (Pobreziaren amaiera), 2. GJH (Zero Gosea), 3. GJH (Osasuna eta Ongizatea), 4. GJH (Kalitatezko hezkuntza) eta 5. GJH (Genero-berdintasuna) helburuekin guztiz lerrokatutako ekintza eta politikak.

COVID-19aren pandemiak eta, oraintsuago, Ukrainako gatazka belikoak eragindako kalte sozial eta ekonomikoek markatutako urte hauetan, Eusko Jaurlaritzak indartu egin du bere politi-ken erdigune diren pertsonekin duen konpromisoa. Hori guztia herritar guztientzako garapen pertsonal eta profesionalerako aukerak eskaintzeko helburuarekin, bereziki egoera ahulenean dauden pertsonak eta kolektiboak zainduz.

Horrek esan nahi du gizarte-babeseko sistema, gizarte-zerbitzuak eta osasun-, hezkuntza- eta mendekotasun-arloko funtsezko zerbitzu publikoak indartzera bideratutako jarduerak bultzatzen jarraitu behar dela, eta, horrez gain, gizarte-eskubideak zabaltzen eta zeharkako bi konpromiso hartzen aurrera egin behar dela: euskararen biziberritze eta normalizazioa, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra. Gainera, aurrekontu horretan, gazteriari erreparatzen zaio, hori baita gure etorkizunaren oinarria gizarte gisa, eta arreta integrala eskaintzen zaio, erronka demografikoari aurre egiteko bide nagusi gisa, emantzipazio-prozesuak errazteko.

4.1. Erronka demografikoari heltzea. Gazteen emantzipazioa

Euskadi, Europako herrialde guztiak bezala, gero eta kezka handiagoa sortzen duen dinamika demografiko batean murgilduta dago. Jaiotza-tasaren beherakadak – neurri handi batean, gazteen emantzipazio berantiarrekin lotuta – eta bizitza-luzetasunak biztanleriaren zahartze-egoera progresiboan jartzen gaituzte, eta horren ondorio ekonomiko eta sozial garrantzitsuak aurreikusi behar dira politika publikoen definizioa bideratzeko.

Demografia suspertzeko neurri eta baldintza egokien ekosistema eratzeko helburuarekin, Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategiak bost ardatz nagusi dituen ikuspegi integral eta progresiboa proiektatzen du: gazteen emantzipazioa, familien eraikuntza, zahartze osasungarria, migrazio-gizarteratzea eta landa-balioa handitzea. Horrela, estrategia honen garapenak berekin dakar etxebizitza-, enplegu-, hezkuntza-, gizarte-, osasun-, migrazio- eta gizarte-prestazioen politikak, laguntzak edo gaitasunen garapenerako laguntza, baita hiri- eta

landa-dimentsio bikoitza ere, epe labur eta ertaineko ekimenekin eta lau sektoreen lankidetzarekin: publikoa, enpresa, hirugarren sektorea eta familia, komunitate-sareekin batera.

Estrategia osoa genero-ikuspegiak bustitzen du zeharka, eta familia-aniztasuna aitortzea eta babestea du helburu. Helburua baldintzak sortzea da, pertsonak, hala aukeratzen badute, amatasuna/aitatasuna beren bizi-proiektuaren beste alderdi batzuekin batera uztartu ahal izateko eta nahi duten seme-alaba kopurua izan ahal izateko, hala nahi dutenean.

Testuinguru horretan, gazteen egoera eta ikuspegiak lehentasunezko arreta-gunea dira. Emantzipatzeko adina aurreratzea helburu estrategikoa eta lehen mailako lehentasuna da Eusko Jaurlaritzarentzat; izan ere, atzerapenak gazteen bizitza-proiektuen garapena (proiektu pertsonalak eta familiarrak) eragozten du, belaunaldien arteko desorekak eragiten ditu eta gizartea zahartzen laguntzen du.

Euskadiko gazteen batez besteko emantzipazio-adina 30,2 urtekoa da, Europako batez beste-koa baino lau urte beranduago. Atzerapen horren arrazoiak ez dira materialak bakarrik, kulturalak ere badira. Kausa materialen artean, denboran zehar elkarri lotutako eta metatutako hiru faktore nabarmentzen dira: enplegua, etxebizitza eta errenta erabilgarria. Azken hamarkadetan, gazteen ondorengo belaunaldiek, batez ere 25 eta 30 urte bitartekoek, aurre egin behar izan diote enpleguaren eta egonkortasunari eta soldata-mailari dagokionez honen kalitatearen ziurgabetasunari; etxebizitza-eskasiari eta garestitasunari, batez ere alokairuari dagokionez; eta, azkenik, bizitza-proiektu independente bat garatzeko nahikoa ez diren errenta erabilgarriei.

Errealitate horri erantzuteko, joan den martxoan gazteen emantzipazioa bultzatzeko 2030erako Euskal Estrategia adostu zen. Estrategia horrek 2022ko martxoan eta ekainean, hurrenez hurren, erronka demografikoari aurre egiteko Gazteriaren Legearen eta Estrategiaren aurreikuspenak garatzen ditu. Helburua 2030rako emantzipatzeko batez besteko adina 28 urtera jaitea da, eta emantzipazio-tasa handitzea, 25-29 urtekoen artean, egungo %39,5etik %50era.

2024. urtea funtsezkoa da estrategia horretarako, eta enplegua eta enplegurako prestakuntza sustatzera bideratutako neurri sorta bat martxan jarriko da, Gazte Enplegurako Talka Planaren mobilizazioarekin; gazteei etxebizitza eskuratzen laguntzea; emantzipazio-erabakiak aurreratzeko laguntzea, besteak beste, emantzipazio-prozesuan dauden 25 eta 29 urte bitarteko gazteentzako zuzeneko laguntza ekonomikoen programa bat sortuz; eta kohesioa sustatzea eta bazterkeria prebenitzea, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratzeko adina aurreratuz edo familia-laguntzako sarerik gabeko gazteei laguntzeko Trapezistak programa bezalako jarduerak garatuz.

4.2. Osasuna, pertsonen bizi-kalitatearen funtsezko zutabea

Osasunaren arloan, politika guztietan zeharkakotasuna modu sistematikoa eta koordinatua sakonduko da, horien guztien arteko sinergiak bilatuz. Horixe da, hain zuzen ere, hainbat gizarte-baldintzatzailearen gainean eraginkortasun handiagoz jarduteko, pertsonen eta kolektiboen arteko desberdintasunak murrizteko eta biztanleriaren osasun-egoera hobetzeko bidea.

Ikuspegi horrek Eusko Legebiltzarrera bidalitako Osasun Publikoaren Lege Proiektuaren edukia hartzen du barne. Proiektu horren helburu nagusia euskal herritarren osasuna babestea eta indartzea da, interes handieneko ondasun publiko gisa, pertsonen eskubideak, aukeraberdintasuna eta osasun-arloko ekitatea bermatuz. Hori guztia, sistema unibertsal, bidezko, publiko eta kalitatezko baten esparruan, gaixotasunari aurrea hartzera eta osasuna babestera eta sustatzera bideratua, bai norbanakoaren esparruan, bai arlo kolektiboan, pertsonak beren osasunaren eta ongizatearen eragile aktibo izan daitezzen bultzatuz.

Printzipio horiek 2030erako Euskadiko Osasun Planaren helburuak eta gidalerroak osatzen dituzte. Plan hori onartzeko prozesuaren azken fasean dago, eta 2024rako indartu eta bideratuko du gobernuaren ekintza esparru horretan. Azaldutako jarraibideen artean, haurren eta nerabeen osasunean inbertitzea eta bizitza osoa lortzera bideratutako zahartzea bultzatuko da. Asistentzia-sistema sanitario eta soziosanitarioetan bikaintasuna eta iraunkortasuna lortze aldera, lehen mailako arreta eta sistemaren ardatz nagusi gisa duen rola indartuko dira. Itxaron-zerrendak murrizteko jarduerak ere indartuko dira. 2024an, kalitate goreneko zerbitzua eskaintzeko funtsezkoak diren instalazioak eta ekipamenduak modernizatzeko prozesua azkartuko da, eta zerbitzuak finantzatzeko eredia berrikusiko da, osasun- eta gizarte-sistemek dituzten erronka berrietara egokitzeko. Azkenik, osasun-arloko ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustu iraunkorrari eusten zaio, estandar aurreratuenak dituen medikuntza eta arreta soziosanitarioa lortzeko bide gisa.

4.3. Etorkizuneko erronketara egokitutako hezkuntza ereduaren eraikuntzan aurrera egitea

Klima-aldaketaren, iraultza teknologikoaren eta lan-merkatua birmoldatzen ari diren aldaketa soziodemografikoen inguruko erronka handiek gure hezkuntza-sistema egokitzea eskatzen digute, ikasleei eskatzen zaizkien gaitasun digitalak eta teknologikoak ez ezik, gero eta konplexuagoa den mundua aztertzeke eta ulertzeko beharrezkoak diren pentsamendu kritikoa, sormena eta prestakuntza humanista emateko.

Helburu horrekin, apirilaren amaieran Legebiltzarrera bidali zen Euskal Autonomia Erkidego-ko Hezkuntzaren Lege Proiektuak ekitatearen eta bikaintasunaren gaineko euskal hezkuntza-sistemaren pixkanakako eraldaketa artikulatzen du, erronka berriei erantzuteko gai izango den hezkuntza berritzaile eta malgu baten aldeko apustu irmoarekin. Hori guztia, gure hezkuntza-ereduaren adierazle diren ezaugarriak indartuz: gizarteratzea eta gizarte-kohesioa, ebaluazioaren kultura eta euskara eta euskal kultura ardatz dituen esparru eleaniztun eta kulturartekoa eratzea.

Osagarri gisa, Lanbide Heziketako politikak 2022ko azaroan onartutako Lanbide Heziketako VI. Euskal Planaren esparruan garatuko dira. Plan horren jardun-ildoak giza garapen jasangarri eta inklusiborantz aurrera egitera bideratuta daude, pertsonen talentua ikaskuntza-eredu aurreratuen bidez bultzatuz, ingurune produktibo berri baten erronkei erantzuteko, teknologikoagoa, digitalagoa eta adimendunagoa, eta EAEko Lanbide Heziketa sendotuz, eraldaketara-ko eta berrikuntzarako funtsezko eragile gisa, pertsonen enplegagarritasuna, euskal enpresen lehiakortasuna eta garapen jasangarria hobetzeko.

Unibertsitate-sistemari dagokionez, aipatu behar da berriki onartu dela Euskal Unibertsitate Sistemaren 2023-2026 Plana. Plan berriak zazpi ardatz estrategiko ditu: Bikaintasun Zientzia; Unibertsitatea+Enpresa; Unibertsitatea+Euskadi Basque Country; Irakaskuntza Berritzailea eta Kalitatekoa; Unibertsitate Komunitate Inklusiboa eta Berdintasunezkoa; Digitalizazioa; eta Eragin Soziala.

2024ko aurrekontuak legearen eta abian diren plan garrantzitsuen artikulazio praktikorako esparru ekonomikoa ezartzen du, abian den beharrezko inbertsio-prozesua indartzeko baliabideak emanez.

4.4. Hizkuntza eta kultura, gure nortasunaren funtsezko osagaiak

Eusko Jaurlaritzaren helburua kultura eta euskara Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan sartzea da. Kulturak orainari forma ematen dio eta etorkizunari aurre egiteko tresnak eskaintzen dizkigu. Komunitate ere egiten gaitu, fenomeno kultural oinarritzkoenetik hasita, hizkuntzatik.

2024ko aurrekontuak berebiziko garrantzia izango du onartu berri den Kultura 2028 Plan Estrategikoa hedatzeko eta gauzatzeko eta euskal kultura eta Euskadi nazioartekotzeko. Euskadiko kultura- eta industria-ondarea berreskuratzeko eta balioesteko inbertsio bereziak gauzatzeko eta, kasu askotan, burutzeko balioko du, bai eta Euskadin funts propioekin zein Europako funtsekin bultzatutako berreskurapen eta eraldaketa sozioekonomikorako estrategien parte izan diren kultura sortzeko eta eskaintzeko espazioak eta proiektuak eraikitzeko inbertsio bereziak burutzeko ere.

Halaber, euskara Hizkuntzaren Teknologietan integratzeko proiektuak bultzatzeko balioko du, GAITU Ekintza Plana garatuz eta INGURA euskara ikasteko plataforma teknologiko berria ezarriz. Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen Dekretu berria eta ESEP-Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana, datozen 10 urteetarako euskara biziberritzeko politiken eta estrategien esparru-dokumentua, onartu eta hedatzea aurreikusten den urte honetan.

4.5. Gizarteratzea, aukera berrien bermea eta inor atzean ez uztea

Gizarteratzeari dagokionez, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege berriak, aurtengo martxoaren amaieran indarrean jarri zenak, ahultasun-egoera guztietara zabaltzen ditu estaldurak, zenbatekoak hobetzen ditu eta prestazioen kudeaketa sinplifikatu eta arintzen du, sistemaren zorrotasuna, segurtasuna eta bermeak areagotuz eta gizarteratzearen eta laneratzearen eraginkortasuna indartuz. Beste berrikuntza batzuen artean, arauak laguntzak eskuratzeko adina 23 urtetik 18ra jaisten du, baldin eta urtebete eramaten bada bizitza-proiektu independente batekin eta egoera ahulean eta enplegurako aktibo badago, erraztu egiten du adingabeak, desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonak dituzten familiei sarbidea ematea, erroldatze-betekizuna 3 urtetik 1era murriztuz, eta bermatutako gehieneko errenta ezingo dela pobrezia-arriskuaren atalasea baino txikiagoa izan ziurtatzen du.

Lege berriak, 2022an Eusko Jaurlaritzari transferitutako Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren kudeaketarekin batera, gizarte-bermerako sistema oso bat eratzen du, aitzindaria eta liderra dena Estatu osoan.

Gizarte-zerbitzuei dagokienez, Gizarte Zerbitzuen 2023-2026 Plan Estrategikoa izapidetzen ari dira. Plan honek erakunde eskudunak batzen ditu, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema indartzea eta gure ongizate-ereduan sakontzea du helburu, eredu familistatik zainketen gizarte-antolaketaren eredura igaroz, eta trantsizio sozial, demografiko eta digitalari helduz, 2030eko hamarkadan eredu komunitarioarekin hobeto egokitzen den erantzukizun publikoko sistema unibertsala bermatuz, arreta-piramidea inbertituz.

Arau-esparru berriaren baldintzei jarraituz, 2024ko aurrekontua inor atzean ez uzteko bitartekoak jartzen dituen gizartearen aurrera egiteko oinarria da.

4.6. Berdintasunezko eta genero-indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzea

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, urrats garrantzitsua da, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko berdintasunezko gizartea lortzeko urrats sendoekin aurrera egiten jarraitzeko.

Hori guztia, dagoeneko eraikitakoan oinarrituta, baina eskaera, erronka eta behar berriekiko planteamendu eraldatzaile eta sentikor batekin, eta sentsibilitate desberdinen integrazioa bultzatuz, babes politiko, tekniko eta herritar zabala bermatzeko, hori izango baita bere arrakastaren gakoetako bat.

Berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta teknikoak indartzen dituen oinarria da arau-esparru berria. Era berean, neurriak ezartzen ditu euskal sektore

publiko osoan berdintasun-politikek aurrera egiteko funtsezko elementuak ezartzeko, hala nola planak, zerbitzu espezializatuak, derrigorrezko prestakuntza progresiboa, genero-ikuspegia aurrekontu publikoetan txertatzea, erabakiak hartzeko eremuetan ordezkariak orekatuak sustatzea, edo dirulaguntza publikoak kontratatzen edo jasotzen dituzten enpresentzako ordainsari-berdintasunaren betekizuna. Era berean, hobetu egiten da indarkeria-kasuen detekzio goiztiarra, eta zabaldu egiten du indarkeria matxistaren biktima eta adierazpen guztiei ematen zaien arreta, baita biktimei eta haien ingurune hurbil eta afektiboan laguntzen dieten pertsonen ematen zaiena ere; horrela, hobetu egiten da haurren eta nerabeen babesa, biktimen erreparazio-eskubidea aitortzen da, eta emakumeen ahalduntzea eta gizonen inplikazioa bultzatzen dira, beste aurrerapen askoren artean.

2024ko aurrekontuarekin, oinarriak jarri dira Legean xedatutakoa betetzeko eta VIII. Berdintasun Planaren artikulazioan aurrera egiteko, bai eta Berdintasunaren aldeko eta Indarkeria Matxistaren aurkako Itun handi bat onartzeko ere, legegintzaldian zehar Emakundek gauzatutako prozesuak burutzeko balioko duena.

5. OPAROTASUNA



Oparotasuna bilatzen duten politikak eta ekimenak, aberastasunaren sorrera eta banaketa ekitatiboa bermatzeko, naturarekin harmonian dagoen eta inklusiboa den giza garapeneredu batekin. 7. GJH (Energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea), 8. GJH (Lan duina eta hazkunde ekonomikoa), 9. GJH (Industria, berrikuntza eta azpiegitura), 10. GJH (Desberdintasunen murrizketa) eta 11. GJHekin (Hiri eta komunitate jasangarriak) bat etorritik.

5.1. Pertsona guztientzako enplegu-aukerak sortzea

Azken urteotan hainbat gertaera negatibo kateatu dira, eta, ondorioz, politika ekonomikoek ekintza irmoa egin behar izan dute ekonomian dituzten kalteak arintzeko. Enpleguari dagokionez, hamalau urte behar izan dira Atzeraldi Handian galdutako enplegua berreskuratzeko: 2022ko bigarren erdian eta pandemiaren oztopoa atzean utzita, denbora osoko milioi bat lanposturen muga pixka bat gaindituta zegoen, 2008an lortu zen gehieneko kopurutik gertu.

Hala eta guztiz ere, euskal lan-merkatuak enpleguaren sorrera, lan-baldintzak eta lan-indarraren produktibitatea oztopatzen dituzten konpondu beharreko botila-lepoak izaten jarraitzen du. 2024. urtean indarrean sartuko den Enpleguari buruzko lehen euskal legea ildo horretan arituko da: erakunde-esparrua egokitu, aldi baterako kontratazioaren eragina murriztu eta enplegu-politika pasibo eta aktiboen eraginkortasuna hobetu nahi da, Lanbideren bitartekaritza-, prestakuntza- eta laneratze-eginkizuna indartuz, eraginkorrak izan daitezkeen.

Modu osagarrian, 2024an estrategia espezifikoaren multzo bat definituko da enplegu-arlo partikularretako kualifikazioak hobetzeko eta belaunaldien arteko aliantza bat eta generoaren araberrako lan-bereizketaren aurkako aliantza bat ezartzeko. Halaber, eta 2023ko apirilaren 19ko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren erabakiz, 50 urtetik gorako kontratazioa sustatzeko programa berri bat ezarriko da. Azkenik, Lanbidek Gasteizen egoitza nagusia duen eta Bizkaian eta Gipuzkoan azpiegoitzak dituen enplegurako berrikuntza-zentroen sarea finkatzea ere aurreikusten da.

Horrez gain, 2024an, pertsonen kudeaketaren hobekuntzan eragin nahi da, lanaldi-murrizketako ekimenek produktibitatean eta enpleguaren kalitatean duten eragina, telelanaren aplikazioa eta enpleguari eragiten dioten enpresen erabaki estrategikoetan langileek batera parte hartzea

aztertzea ahalbidetuko duten ekimen pilotuak abian jarri. Hori guztia, produktibitatearen hobekuntzan oinarrituta, produkzio-faktoreen (lana eta kapitala) metaketarekin batera, hazkunde ekonomikoaren, soldaten hobekuntzaren, errentagarritasunaren igoeraren eta epe luzerako enpresa-proiektuen iraunkortasunaren iturri nagusia baita.

5.2. Industriaren aldeko apustua egiten jarraitzea, euskal ekonomiaren eragile gisa

Euskal administrazioek industria-politika proaktibo baten alde egindako apustu irmo eta jarraituak ahalbidetu du, krisiak krisi, euskal industria globalki gero eta lehiakorragoa izaten jarraitzea.

Gaur egungo industria-erronkak ez dira iraganekoak baino txikiagoak. Alde batetik, pertsonen talentuan oinarritutako balio erantsi gero eta handiagoko jardueretan produkzio-sarea dibertsifikatzeko prozesuetan aurrera egiteko premiari aurre egin behar diogu, eta, bestetik, 2024ko aurrekontuak jarraipena eman behar dio I+G+b-n inbertitzeko ahalegin handiari, Euskadi Europako eskualde aurreratuenetara hurbiltzeko berrikuntzan. Era berean, industriak trantsizio teknologiko-digitalaren erronka handia du aurretik, azaleratzen ari diren teknologia digitaletatik (adimen artifiziala, gauzen Interneta edo robotika kolaboratiboa, besteak beste) sortzen den produktibitate-hazkudearen potentziala aprobetxatzeko, eta hori pertsonen eta enpleguaren kalitatearen zerbitzura jarri beharko da. Ildo horretan, 4.0 Industria lehiakorra sortzea eta balioestea funtsezko elementua da euskal gizarteak bigarren sektorearen alde egiten duen apustuan.

Azkenik, baina ez garrantzi gutxiagokoa, euskal industriak deskarbonizazioaren erronka handia du aurrean, nazioarteko komunitateak klima-aldaketaren aurka duen borrokara egokitzeko. Euskal industriak neutroa izan beharko du karbonoari dagokionez, eta deskarbonizazioak eskaintzen dituen industria- eta teknologia-aukerak aprobetxatu beharko ditu aberastasuna eta kalitatezko enplegu-aukerak sortzen dituen industria-herrialdea izaten jarraitzeko.

Testuinguru horretan, Net-Zero Basque Industrial SuperCluster ekimena nabarmentzen da. Ekimen horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan zero emisio garbietarako bidea bizkortzea, energia-horniduraren deskarbonizazioa eta energia-eraginkortasuna sustatuz energia-erabilera intentsiboa duten industria-sektoreetan, eta teknologia eta zerbitzu berritzaile berrien eskalatzean oinarritutako merkatu-aukerak sortuz.

2024ko aurrekontuak balioko du 2021-2024 aldirako Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plana garatuz aurrera egiteko. Plan horren helburua hiru trantsizioei erantzun eraginkorrak ematea da, berrikuntzan oinarritutako industria lehiakorra globalki bultzatzeko eta hedatzeko konpromisotik abiatuta.

5.3. Zientzia, teknologia eta berrikuntzan inbertitzearen aldeko apustuari eustea

Eusko Jaurlaritzak zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren aldeko apustuari eusten dio, aberastasuna sortzen duen ekoizpen-ehunaren katalizatzaile gisa, baina baita bere talentuarekin gizateriaren arazoak konpontzen laguntzen duen gizarte aurreratu bat eraikitzeko bektore gisa ere.

Horretarako, espezializazio adimendunaren estrategian sakonduko da, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema indartuko da; horrela, azken aurrekontu-ekitaldietako I+G+b arloko inbertsio-ahaleginarekin jarraituko da.

5.4. Finantza-sistema indartzea

Lehiakortasun iraunkorreko eredu baterantz aurrera egiteko beharrezkoa den eraldaketa-konpromisoak aldaketa sakona eskatzen die finantza-sektoreari eta enpresei, finantza-fluxuak berbideratzea eta iraunkortasun-faktoreak negozio-estrategian eta arriskuen ebaluazioan eta kudeaketan erabat integratzea.

Ildo horretan, Gobernu Kontseiluak maiatzaren amaieran onartu du Finantzen Euskal Institutuaren lege-proiektua, bere antolamendu-sistema indartzeko eta Eusko Jaurlaritzaren politika sektorialeiei lotutako beharrezko finantza-tresnen kudeaketa hobetzeko.

Legearen ondorioz, Institutua Eusko Jaurlaritzaren finantza- eta kreditu-politika publikoan zeregin aktiboa burutzeko moduan aurkituko da.

5.5. Mugikortasun jasangarriko sistema artikulatzen aurrera egitea

Garraio-azpiegituren arloan, mugikortasun jasangarriko eredu berri bat bultzatu behar da, gizarte- eta ingurumen-eragin txikiagoak dituzten garraio-bideak lehenetsiko dituen

Apustu horretan, trenbide-garraio sare moderno eta sozial bat garatzea funtsezko kate-maila da. Horregatik, 2024ko aurrekontua baliagarria izango da oinarrizko sarearen garapen-erritmoa bizkortzeko eta bigarren mailako oinarrizko sareetan aurrera egiteko, Frantzia eta Espainiaren arteko mugan botila-lepoak kentzeko eta Euskadiko portuek fatxada atlantikoan duten rol estrategikoa bultzatzeko. Bestalde, euskal trenbide-sarea Europa Barneko Garraio Sarearen Korridore Atlantikoan integratzen dela bermatzea funtsezko elementua da Europan hobeto integratzeko eta pertsonen eta salgaien garraio jasangarria bultzatzeko.

5.6. Euskadiko Hiri Agendaren hedapenean aurrera egitea. Hiri jasangarriak

Hiri eta komunitate jasangarrien eremuan, etengabe aldatzen ari diren aldagai horiek kudeatzeko gai den garapen jasangarri, inklusibo eta adimenduna bermatu eta ahalbidetuko duten hirien eredurantz eboluzionatzea da erronka. Horretarako, 2024ko aurrekontuan Euskadiko Hiri Agenda- Bultzatu 2050 ezartzen jarraitzeko baliabideak jarriko dira, Euskadik, besteak beste, Hiri Agendaren lau erronka nagusiei (ingurumena, gizartea, ekonomia eta teknologia) aurre egiteko tresna izan dadin.

Horretan ere laguntzen du etxebizitza-politikak; izan ere, etxebizitza duin, egoki eta irisgarri bat eskuratzearekin batera, pertsona eta kolektibo guztiek, bereziki gazte eta kolektibo zaugarriek, birgaitzea, hiri-berroneratzea eta etxebizitza-berrikuntza sustatzen ditu, irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna eta eraikuntza jasangarria hobetuz.

Alderdi horretan, beste proiektu batzuen artean, Euskadiko auzo zaugarrienen hiri-berroneratzearekin lotutakoa nabarmentzen da. Bertan, eraikinak eta etxebizitzak birgaitzearekin batera, dauden hiri-ingurunea lehengoratzeari ekiten zaio, gizarte- eta hiri-bizikaltatearen estandarrak hobetzeko eta klima-aldaketa bezalako erronken aurrean prestatzeko.

5.7. Energia berriztagarria bultzatzea

Larrialdi energetiko eta klimatikoak agerian utzi du gero eta gehiago, eta premia, iturri energetiko autoktono eta berriztagarriekin hornitzeko benetako beharra. Helburu nagusia mix energetikoa aldatzea da; Euskadirentzat ez ezik, Europa osoarentzat ere lehentasuna da.

Egungo energia- eta ingurumen-testuinguruak ekonomiaren deskarbonizazio-helburua lortzeko prozesua bizkortzea eskatzen du. Horretarako, energia-iturri berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak zabaltzea behar da lurren gainean, eta instalazio horiek handiagoak izan behar dute datozen urteetan. Instalazio berriak ezartzeak ingurumen-eskakizunak bete behar ditu, bai eta kultura-ondarea, ingurune sozioekonomikoa, segurtasuna eta osasuna zaintzeko errespetua ere.

Energia Berriztagarrien Euskadiko Lurralde Plan Sektorialak hasierako onarpena du, eta Euskadik ekonomia deskarbonizatuz amaituko den trantsizio energetikoa egiteko beharrezkoak diren energia berriztagarrien instalazioak izatea bultzatuko du. Horren oinarrietako bat autokontsumoaren eta energia-komunitateen aldeko apustua da, energiaren azken kontsumoan duten partaidetza-kuota handitzeko.

6. PLANETA



Basque Green Deal. Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko, kutsaduraren aurka borrokatzeko eta biodibertsitatearen galera gelditzeko politikak. 6. GJH (Ur garbia eta saneamendu fisikoa), 12. GJH (Ekoizpen eta kontsumo arduratsua), 13. GJH (Klima atmosferikoaren aldeko ekintza), 14. GJH (Itsaspeko bizitza) eta 15. GJHekin (Lurreko ekosistemen bizitza) bat etorri.

Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko erronka handiari erantzunez eta Europar Batasunaren ereduari jarraituz, 2021ean Eusko Jaurlaritzak bere ibilbide-orri propioa planteatu zuen ingurumenaren aldetik jasangarriagoa izango den etorkizuna lortzeko, Basque Green Deal (BGD) izeneko.

BGDk emisioak murrizteko eta energia berriztagarria sortzeko helburuak jasotzen ditu, baina ez da esparru horietara mugatzen; izan ere, eredu ekonomiko gisa sortzen da, industria eta garapen teknologikoa palanka nagusi direla, eta, beraz, zientzia, teknologia, ekonomia zirkularra, industria, trantsizio energetikoa edo elikaduraren katea bera helburu berarekin lerrokatzen dira: bidezko garapen jasangarria.

6.1. Basque Green Deal eta Euskadik jasangarritasunarekin duen konpromisoa bizkortzeko arau-aldaketa

Lortu nahi dugun karbono-neutroa den lehiarako eredu berriak arau-testuinguru berri bat eskatzen du, eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzak Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Lege berri bat igorri dio Legebiltzarrari, Europako zuzentarau eta adierazleekin bat datorrena. Legea emisioak murrizteko eta energia berriztagarria sortzeko helburuetan aurrera egitea ahalbidetuko duen tresna da, eta neutraltasun teknologikoaren printzipioan oinarrituta egongo da.

Legearen osagarri gisa, Eusko Jaurlaritzak Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako 2050 Bide Orria onartuko du. Bertan, dagoen ezagutza zientifiko eta teknologikoan oinarrituta, klima-neutraltasuna eta lurraldearen erresilientzia lortzeko bidea definituko da, eta jardura zehatzak garatzeko oinarriak ezarriko dira, arlo horretako arau-aldaketei gehituko zaizkienak eta politika publiko guztien zeharkakoak izango direnak: administrazio publikoek iturri berriztagarrietatik datozen energia-bektore berriak sustatzea, hala nola hidrogenoan oinarritutako teknologiak

(hidrogeno berdea); energia biltegitratzea, mugikortasun jasangarria bultzatzea, jarduera horiek eraginkorragoak baitira ingurune naturala babesteko eta kudeatzeko; eta neurriak hartzea eraginkortasun energetikoa eta klima-aldaketa integratzeko lurralde-antolamenduaren eta plangintzaren esparruan, eraikuntzan eta birgaitzean, baita kudeaketan ere.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak ikerketa energetikoaren euskal estrategian sakonduko du, enpresa-ehuna eta enplegua sustatzeko palanka gisa. Horretarako, energiaren arloko ikerketa, garapen teknologiko eta enpresa-ehunaren arloak bultzatuko ditu, espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi euskal estrategian zehaztutako lehentasun estrategikoekin bat etorriz. Era berean, Euskadik potentzial teknologiko eta industrial handia duen energiaren balio-kateen eremuan euskal industria eta teknologiaren posizionamendua bultzatzen duten ekimenak bultzatuko ditu.

Azkenik, 2024ko aurrekontuarekin, EAEko industrien trantsizio energetikoa bultzatzeko ekimenekin jarraituko da, energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko, energia berriztagarriak erabiltzeko eta CO2 isurketak murrizteko laguntza-lerroak indartuz, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko.

6.2. 8 proiektu eraldatzaile, ingurumen-politika gidatzeko

2030erako Ingurumenerako Bosgarren Esparru Programak hamarkada amaierara arte gidatuko ditu ingurumen-politikak, eta 2024rako aurrekontua izango da programa osatzen duten 8 proiektu eraldatzaileen bultzada praktikorako oinarria, ingurumenaren zeharkakotasunaren ideia azpimarratuz:

1. Produktu eta zerbitzu jasangarriak erosteko zentrala bultzatzea euskal administrazio osorako.
2. Lurraldearen kohesio iraunkorra sustatzea, lurraldearen multifuntzionaltasuna mantendu eta sustatzeko, paisaia-aniztasuna kontserbatzearen edo azpiegitura berdeak sortzearen aldeko apustua eginez, besteak beste.
3. Osasunaren eta ingurumenaren behatokia eratzea.
4. Balio-kateetan zirkulartasuna sustatzea.
5. Enpresa txiki eta ertainak jasangarritasunerantz igarotzen laguntzea.
6. Iraunkortasunaren zerbitzura dagoen gizarte-berrikuntza sustatzea. Horretarako, iraunkortasunari buruzko gizarte-deliberazioko prozesu aurreratuak aplikatuko dira, gizarte-erantzunkidetasuna erraztuz, non gizarteko sektore gazteenek funtsezko zeregina izango duten.
7. Herritarrak kontsumo jasangarrian ahalduntzea.

8. Finantza jasagarriak sustatzea, inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko Europako erregelamenduaren egokitzapen azkarra bultzatuz..



7. BAKEA

Eusko Jaurlaritzaren ekintzak bizikidetzaren kultura defendatzearen, sustatzearen eta hedatzearen aldeko apustua egiten du, indarkeriak eragindako kaltearen bidegabekeriaren oroinenean, giza eskubideen errespetuan, aniztasunean eta printzipio demokratikoetan oinarrituta. 16. GJHrekin (Bakea, justizia eta erakunde sendoak) lerrokatuta.

7.1. Pertsonak zuzenbide-estatuaren esparruan babestuko dituen justizia-zerbitzu publiko baten antolaketan aurrera egitea

Justizia funtsezko zerbitzu publikoa da gizarte-kohesioari eusteko. 2024ko aurrekontuak 2022-2028 Justizia Plan Estrategikoa ezartzera bideratutako inbertsio eta jarduketekin jarraitzeko oinarriak ezartzen ditu.

Haren garapenarekin justizia-zerbitzu publiko bat finkatzea aurreikusten da, herritarrek, beren langileek, gainerako eragile juridikoez eta administrazioetakoek ezagutu eta aitortua, adeitsu, eskuragarri, fidagarri, arin, garden eta efiziente gisa: egoera ahulenean dauden kolektiboek babes berezia ematea; justizia-administrazioaren erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzea; eztabaidak konpontzeko bitarteko egokiak garatzea; eta antolamendu-eredu bat ezartzea, pertsona motibatuak oinarri hartuta, kudeaketa hobetzeko eta justizia digitala erabat eraginkorra izateko.

7.2. Pertsona guztien arteko bizikidetzarako oinarriak indartzea

Eusko Jaurlaritzaren Udaberri 2024 – Bizikidetzaren, Giza Eskubideen eta Aniztasunaren Plana estuki lotutako hiru eremu handiren inguruan egituratzen den bizikidetzaproiektua da. Esparru horiek dira Bizikidetzarako Euskal Agenda, Giza Eskubideen Agenda Globala eta Aniztasunerako Euskal Agenda. Agenda horren esparruan, Giza Eskubideen defentsarako politiken barruan sartzen diren legeak Legebiltzarrean onartzeko prozesuak amaituko dira, hala nola Memoria Historikoaren Legea, Kultu lekuen, Zentroen eta Erligio Aniztasunaren Legea eta Lankidetzaren Legea.

7.3. Autogobernua indartzea eta egiteke dauden transferentziak osatzea

Euskadiko sendotasun instituzionala estuki lotuta dago Estatutua osorik betetzearekin, erakunde-sistema propioak eraginkortasunez eta irmoki kudeatu behar dituen eskubide eta zerbitzu publiko guztiak bermatu eta eskaini ahal izateko.

Ildo horretan, aipatzekoa da Euskadi-Estatua Lankidetzarako Bitariko Batzorde Iraunkorra bultzatzeko Lehendakariak Estatuko presidenteari politika orokorreko azken eztabaidan planteatu zion akordioa, falta diren gainerako eskumenak egokitzeko moduak eta oinarriak lantzeko eta ezartzeko, Espainiako Gobernuak 2020ko urriaren 14an bidalitako egutegiarekin bat etorritz.

Era berean, autogobernua eguneratzeko, sakontzeko eta hedatzeko konpromisoa berresten da, oinarritzko irizpide partekatuen arabera: estatutu-espirituarekin eta -funtsarekin eta maila anitzeko gobernantzaren printzipioekin bat datozen alderdiak sartzeko; Euskadiri politika publiko berriak diseinatzeko eta gauzatzeko gaitasuna ematea; legeria inbaditzailearen bidez birzentralizatzeko tentazioak saihestea; eta Europako eta nazioarteko erabaki-foroetan eta organismoetan parte hartu ahal izatea, euskal erakundeen berezko eskumen-tituluen bidez tokian-tokian ezarri beharreko konponbideei modu koordinatuan aurre egiteko.

Autogobernuaren garapenari begira, Parte-hartzeari eta Gardentasunari buruzko lege berria onartzea aurreikusita dago. Lege hori mugarri bat izango da Euskadi Estatuaren buruan mantentzeko gobernu onari eta jardunbide egokiei dagokienez. Era berean, Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa (ARDATZ 2030) ezartzen jarraituko da. Plan hori sail guztientzako zeharkakoa da, eta Euskadik gobernantza publikoan eta, bereziki, administrazio digitalean duen lidergoa mantentzea eta indartzea du helburu, zerbitzu publikoak zabaltzeko eta hobetzeko, ahaztu gabe beharrezkoa dela aurrez aurreko arreta hurbila eta kalitatezkoa ematea, hori baita Eusko Jaurlaritzak euskal gizartearen aurrean duen erakusleihoa.

Azkenik, azpimarratu behar da dagoeneko abian jarri direla finkatzeko Lan Eskaintza Publiko (LEP) guztiak, eta, prozesu bakar eta salbuespenezkoaren ondoren, asmoa dela LEPen aldizkako deialdira itzultzea, bi-hiru urtean behin. Horrela, batetik, belaunaldien arteko erreleboari ekin ahal izango zaio, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren plantilla arin egokitu ahal izango da egungo gizartearen ezaugarri diren aldaketa handi eta bizkorretara.



8. LANKIDETZA

2030 Agenda euskal gizarteari aurkeztea, aldatzen ari den eta krisian dagoen mundu honetan kontratu sozial berria egiteko proposamen gisa. Proposamen hori tokiko aliantza zibikoarekin hasten da, eta “Euskadi, auzolana” leloan dago jasota. 17. GJHrekin (Helburuak lortzeko aliantzak) bat etorritz.

Lankidetzaren ituna, elkar ulertzea eta lankidetzaren publiko pribatua dira gobernuaren jardunaren oinarriak eremu guztietan. Industria-politikaren oinarri diren kluster-ekimenak, hezkuntza publikoaren eta itunpeko politikaren, elkarrekin kalitate goreneko hezkuntza-zerbitzu bat egituratzen duten hezkuntza ikastetxe publiko eta itundutakoak, edo, I+G+bren aldeko euskal apustua katalizatzen duen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea, erakunde publikoek ekimen pribatuarekin batera eta zeharka egindako lanaren adibide batzuk dira, politika eraginkorragoak bultzatzeko eta gure beharretara eta nahietara egokituagoak izan daitezzen.

2024ko aurrekontuak ezberdinen arteko ituna eta elkar ulertzea sendotzeko balio du, guztien onerako.

Koiunturari dagokionez, beharrezkoa da euskal erakundeek Europako programa eta proiektuetan Euskal Autonomia Erkidegoko partaidetza maximizatzeko egindako lana eta ahalegina nabarmentzea, bereziki Next Generation EU ekimenean, zeina Europan egindako bultzada fiskal handiena baita, krisi pandemikoaren aurka borrokatzeko eta erronka digital, energetiko, klimatiko eta sozialetara egokitzeko Europako ekonomia eraldatzeko.

Eusko Jaurlaritzak zuzendutako Euskadi Next ekimenak, Foru Aldundien eta hiru euskal hiriburu-udalen lankidetzaren estuarekin, krisi berrien aurrean gure sistema ekonomiko eta sozialaren eraldaketa eta erresilientziarako proiektuen hautaketa garrantzitsu bat jarri zuen mahai gainean.

Euskadi Next, bigarren edizioa, proiektu bizia da, Next Generation ekimenaren ezarpenaren bilakaerari erantzuten diona. Gaur egun, hirugarren edizio bat prestatzen ari dira euskal erakundeak, Europako funtsek euskal gizarte- eta enpresa-sarean duten eraginari balioa emateko eta euskal erakundearen eta eragilearen agenda prestatzeko, oraindik gauzatzeke dagoen potentziala ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Alde batetik, ekoizpen-sistema eraldatzera bideratutako funts gehienak: 12 PERTE, Estatuko Administrazio Orokorrek zuzenean kudeatuak,

eta, bestetik, Europako funts berriak, oraindik iristeke daudenak eta Estatuko Administrazio Orokorrek Berreskuratzeko, Eraldatzeko eta Erresilientziarako Espainiako Planaren Eranskin Gehigarria aurkezteko zain daudenak. Aurreikuspenen arabera, diru-sorta berri eta garrantzitsu bat jarriko da agente publiko eta pribatuen eskura, dirulaguntzen eta maileguen artean 90.000 milioi baino gehiago izango dituena.

Maila anitzeko gobernantzaren ikuspegitik, nabarmentzekoa da Euskadik Galiziarekin, Asturiasekin eta Kantabriarekin batera mugaz gaindiko eskualdeen sarean parte hartzen duela, Ardatz Atlantikoa bultzatzeko eta Atlantikoko Makro-eskualde bat sortzeko. Makro-eskualde horrek lanerako eta topaketarako foro gisa balioko du helburu komunak antolatzeko, hala nola trenbide-sarea, hidrogenoaren korridorea, klima-aldaketari erantzutea eta espezializazio adimenduneko eredu propio baten aldeko apustua egitea. Helburua da Europar Batasuneko Kontseiluaren Espainiaren Lehendakaritzan, aurtengo bigarren seihilekoan, Kontseilu Europarrak Batzordeari Atlantikoko Makro-eskualdeko Estrategia bat garatzeko agintzea lortzea.

9. . FINANTZA PUBLIKOEN JASANGARRITASUNA: ZUHURTZIA FISKALA ETA INBERTSIO PUBLIKO BERDE, DIGITAL ETA SOZIALAREN BABESA

Europak ezarritako kontsolidazio fiskalaren beharrak, 2008ko finantza-krisiari aurre egiteko, zerbitzu publiko ugari doitzea eta inbertsio publikoaren erritmoa moteltzea behartu zuen. Horrek guztiak ondorio larriak izan zituen ekonomia errealean, atzeraldi luze eta gogorrean murgilduta egon baitzen.

Gaur egungo hamarkadan, Pandemiaren eta Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioz, Europak Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren (EHI) ihes-klausula gauzatu zuen, eta, horri esker, administrazio publikoaren aurrekontu-eskakizunen malgutasun handiagoaren bidez, inbertsio antiziklikoko neurri garrantzitsuak jarri dira abian, eta neurri handi batean inpaktuak saihesten eta krisietatik azkar samar ateratzen lagundu dute.

Logika onean, egindako zerga-politika proaktiboek tentsioan jarri dituzte bai Estatuak bai Europar Batasuna osatzen duten eskualdeen kontu publikoak. Horiek aurrekontu-defizit handiak eta zorra metatu dute EHIn ezarritakoaren gainetik. Horrez gain, kontu publikoek zor publikoaren zerbitzu gero eta handiagoari aurre egin behar diote, Europako Banku Zentralak (EBZ) egindako moneta-politikaren ondorioz. Izan ere, politika horrek, modu azkarrean, nabarmen handitu ditu interes-tasak, eta Europar azken aldian indarrean egon diren tasa negatiboetatik atera da.

Itxura guztien arabera, EHIren ihes-klausula 2023aren amaieran desaktibatuko da, eta 2024ko aurrekontua kontsolidazio fiskalaren arau zorrotzagoetara egokitu beharko da. Hori Itun Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren akordio bidez ezarri behar da, Euskadirentzako defizitaren eta zorraren bidea finkatzeko. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak ahalik eta gehien baliatuko ditu klausula formalki desaktibatzen den unera arteko aurrekontu-malgutasunaren marjinak.

Hori guztia, Europar Batasuneko gobernantza ekonomikoaren esparru berrituari buruzko elkarrizketak hasiak ari diren bitartean. Izan ere, 2023ko maiatzean argitaratutako Europako Batzordearen Komunikazioak, Europako Sei hilekoaren udaberriko paketeari buruzkoak, eskatzen du 2024tik aurrera epe ertainera saneamenduko eta jasangarritasuneko zerga-politikari eusteko, inbertsioekin eta erreformekin konbinatuta, aurrekontu-posizio zuhurra izateko.

Testuinguru horretan, finantza publikoen jasangarritasuna da Gobernu gisa dugun erronka handienetako bat; izan ere, gai izan beharko dugu kontsolidazio fiskala eta aurreko ataletan agerian geratu diren inbertsio-premia izugarriak uztartzeko. Izan ere, premia horiek beharrezkoak dira ehun ekonomiko eta soziala klima-aldaketaren aurkako borrokaren eskakizunetara egokitzeko, gizarte-azpiegiturak berritzeko eta hazkunde ekonomikoaren potentziala bultzatzeko, ezagutzan, teknologian eta berrikuntzan oinarrituta.

Behar horiek ahalegin handia ekarriko dute gure kontu publikoentzat, eta dagoeneko ari dira egiten.

Bigarrenik, inbertsio-beharrizanarekin batera, gero eta sofistikuagoak diren herritarrek zerbitzu publiko gehiago eta hobeak eskatzen dituzte, eta, aldi berean, irtenbide berritzaileak eskatzen dizkiete administrazio publikoei, osasun, hezkuntza, etxebizitza, garraio eta abarren premiei erantzuteko eraginkorrak izan daitezten. Bistakoa da informazio-teknologietan egindako aurrerapenek, hala nola adimen artifizialak (IA) edo prozesuen automatizazioak, epe luzera moteldu egin dezaketela premia gero eta handiagoei erantzuteko behar den gastuaren gehikuntza, baina ez dago zalantzarik premia horiek, beste alde batetik, arau-aldaketa nabarmenak eskatuko dituztela, eta, are garrantzitsuagoa dena, digitalizazio-inbertsioen hazkunde handia epe laburrean, zerbitzu publikoen hornidurako gastuen gehikuntza naturalei gehituta.

Kasurik paradigmaticoena osasun-zerbitzua da; izan ere, aldaketa teknologiko azkarraren eta diagnostikoak eta tratamenduak hobetzeko aukeren ondorioz, tratamenduak asko garestitzen ari dira epe laburrean, eta, ondorioz, biztanle bakoitzeko gastu publiko handiagoa dago.

Horrez gain, biztanleriaren zahartze progresiboa gehitu behar zaio osasun-gastuaren goranzko presioari. Adineko pertsonak gero eta gehiago dira, arreta soziosanitario handiagoa behar dute, eta gero eta egitura gehiago aldatu behar dira osasun-zerbitzu publikoaren funtsean eta hornitzeko moduan. Horretarako, gero eta baliabide publiko gehiago eduki beharko dira.

Epe luzeko joera horiei eta gure aurrekontuetan eragiten dituzten tentsioei erantzuteko, antolaketa- eta kudeaketa-estrategia ausartak erabili beharko dira, horiei aurre egiteko eta pertsonen beharrei behar bezala erantzuteko.

Ildo horretan, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra gobernu egoki berriaren funtsezko neurri gisa sartzen da. Horrek zerikusia du gure dimentsio optimoa eta garapen ekonomiko eta sozialerako gure helburuekin bat datorrena aurkitzearekin; giza baliabideak eta finantza-baliabideak eta mota guztietakoak optimizatzea ezinbesteko baldintza da, eta datozen urteetan indartu eta bultzatu egin beharko ditugu.

Gai izan behar dugu maila igotzeko eta ekintza administratiboaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea agenda sozial, instituzional eta politikoaren toki pribilegiatu batean jartzeko, ARDATZ 2030 Gobernantza, Berrikuntza Publiko eta Gobernu Digitaleko Plan Estrategikoan ezartzen den bezala. Hori guztia, erabakiak hartzerakoan itoguneak eta disfuntzionaltasunak saihestuko dituzten egiturak eraikitzeko, administrazio publikoaren zerbitzura dauden pertsonen ezagutza eta gaitasunak eraginkortasunez aprobetxatuz.

Ikuspegi horretatik, politika, plan, programa eta tresna publikoen ebaluazioa indartzea da aurrekontu-esleipena hobetzeko daukagun tresna nagusia, eta, horretarako, jarduera neurtzeko sistema objektiboak abiarazten ditugu, helburuetan oinarrituta, zerbitzuen kalitatearen balorazio objektiboa eginez eta administrazio-prozesuen eraginkortasuna monitorizatuz. Horretarako, alde batetik, ebaluazio-prozesuetan sakondu beharko dugu, bai ikuspegi metodologikotik, bai ikuspegi instituzional eta juridikotik, eta, bestetik, barne-kontrolako ereduak indartu beharko ditugu. Beharrezko kontrol ekonomiko eta juridikoari ustiapena eta kudeatzaileen eskura jartzea gehituz, haien jarduna monitorizatzeko eta kudeaketa hobetzeko informazio baliotsua.

Politika publikoak behar bezala diseinatzeko eta aplikatzeko, bereziki garrantzitsua da horien ebaluazioa orokortzea eta ebaluazio horien emaitza erabakiak hartzerakoan txertatzea. Politika publikoen diseinuaren eta ondorioen ebaluazioak arduradun politikoaren jardunen eta emaitzen gaineko gardentasuna sustatzeko eta kontuak ematea errazteko balio behar du. Baina funtzio teknikoa ere betetzen du, erabakiak hartzeko prozesua informazio baliotsuarekin elikatzeko aukera ematen baitu, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko.

Aipatu ditugun kudeaketa publikoaren berrikuntza-dosi handiez gain, finantza publikoaren jasangarritasunak, Europako arau fiskalen mende egongo direnak, hausnarketa sakona beharko du diru-sarrera publikoaren aldetik, Foru Aldundiekin partekatutako hausnarketa eta azterketa sakoneko prozesu batean.

Autogobernu gehiago eta lidergo publiko bat, konfiantzan eta eragile pribatuekiko lankidetzan oinarritua, kontsolidazio fiskalerako eredu partekatu bat artikulatzen lan egitera behartuko gaitu,

enpresen lehiakortasuna eta ahulenekiko elkartasuna bultzatzeaz gain, finantza publikoei epe luzeko esparru batean eusteko aukera emango diguna, aurrekontu-egonkortasuna eta jasagarritasuna bermatuko dituen esparru batean.

10. AURREKONTU-JARRAIBIDEAK

Aurreko irizpideak garatzeko, jarraibide espezifiko hauek ezarri dira 2024ko aurrekonturako:

LEHENENGOA: Langileen gastuak

2024ko aurrekonturako langile-gastuen kalkulua Ekonomia eta Ogasun Sailak egingo du.

Sektore publikoko langileen ordainsarien baldintzak 2024rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean ezarritakoaren arabera izango dira.

Oro har, aurrekontu-plantilla ez da handituko 2023ko abenduaren 31n dauden plazen guztizko agregatuarekin alderatuta.

BIGARRENA: Funtzionamendu-gastuak eta Transferentzia arruntak

Erakunde-administrazioko erakundeetarako transferentziak kalkulatzeko, langile-gastuak finantzatzen dituzten zatian aurreko apartatuan jasotako orientabideak kontuan hartuko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sailek, erakunde autonomoek eta gainerako erakundeek jarraibide ekonomiko hauetan zerrendatutako erronkei aurre egitera bideratuko dituzte diru-laguntzen gastu-politikak.

HIRUGARRENA: Inbertsio Errealak, Kapital Diru-laguntzak eta Finantza-Aktiboen Aldakuntza

Aurreko ekitaldietako betebeharrak biltzen dituzten jarduketetarako kredituak zuzkituko dira. Planteamendua urte anitzeko plangintzaren barruan egingo da, lehen aipatutako trantsizioei aurre egiteko.

LAUGARRENA: Finantza-gastuak eta Finantza-Pasiboen Murrizketa

Zor publikoaren interesak eta amortizazioa aurreikusitako kostuaren arabera aurrekontuan sartuko dira.

BOSGARRENA: Sektore Publikoko Erakundeak

Ez da Sektore Publikoko Erakunde berririk sortuko.